

EUROPA EZAGUTZEN

AURKEZPENA

1. Orain Europa ezagutzen ari gara klasean, beraz, gure helburua izango da Europako herrialdeak hobeto ezagutzea. Horrexegatik, errepasatuko ditugu Europar Batasuneko estatu kideak eta kideak ez direnak ere bai.

2013tik hauek dira Europako Batasuneko estatu kideak: Alemania (1952) , Austria (1995), Belgika (1952), Britainia Handia (1973), Bulgaria (2007), Danimarka (1973) , Errumania (2007), Eslovakia (2004), Eslovenia (2004) , Espainia (1986), Estonia (2004), Finlandia (1995), Frantzia (1952), Grezia (1981), Herbehereak (1952), Hungaria (2004), Irlanda (1973), Italia (1952) , Kroazia (2013), Letonia (2004), Lituania (2004), Luxenburgo (1952) , Malta (2004) , Polonia (2004), Portugal (1986), Suedia (1995), Txekia (2004) , Zipre (2004).

Gaur egun estatu kide izateko zerrenda ofizialean estatu hauek daude: Mazedonia, Turkia, Serbia eta Montenegro.

Sartzeko eskaera egin dutenak, baina ofizialki ez onartuak: Albania

Sartzeko eskaera oraindik egin ez duten hautagai potentzialak: Bosnia-Herzegovina eta Kosovo.

Europar Batasunera gehitzeko agendan ez dauden estatuak:

- Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suitza.
- Mikroestatuak (Andorra, Monako, San Marino eta Vatikanoko Hiria)
- Mendebaldeko Balkanak (Armenia, Azerbaijan, Bielorrusia, Georgia, Moldavia eta Ukraina)
- Kazakhistan eta Errusia.

Baina, ezagutzen dugu nola sortu zen Europa? Hona hemen 3 minututako bideoa non agertzen den [Europako historia azken 4000 urteetan](#).

HAUSNARKETA: NORA GUSTATUKO LITZAIGUKE JOATEA?

Zeintzuk dira ezagutzea gustatuko litzaizkizukeen herrialdeak? Zergatik? Beste herrialde batera joan zara? Zeintzuk dira Europako herrialde ezagutzen dituzunak (telebistatik, internetetik, edota iruzkinetatik)?

Irakur ondorengo bloga agertzen diren iradokizunak, gero gure arrazoiak emateko: [Sinmapa \(¿Por qué viajar?\)](#)

Zeintzuk izan daitezke bidaiak egiteko galderak?

- Nola lortuko dugu bidaia baten informazioa jaso eta nola antolatuko dugu?
- Zer egin genezake herrialde batzuetatik bidai bat antolatzeko?
- Zein informazioa jaso behar dugu herrialde atzeritar batera joan baino lehen?
- Zein da herrialdea ezagutu nahi duguna?
- Badakigu bidaia egitea “lekuak bisitatzea” baino askoz gehiago dela?

.

Hausnarketa egin ondoren ikusiko dugu ondorengo bideoa Europako herrialdeen hiriburuarekin:

https://www.youtube.com/watch?v=LXR96_42hY

Eta orain nora gustatuko litzaizueke bidaia egitera? Aukeratu behar duzue herrialde bat eta azaldu kideen aurrean zergatik.

EUROPA EZAGUTZEN: IBILBIDEA

1- SAIOA

1. LAN KOOPERATIBOA SORTU: 3 TALDE: Ibilbidea egiteko sortuko ditugu 3 talde (5 ikasle talde bakoitzeko).
2. Gero, taldeko kideok zuen ibilbidea egin behar duzue. **Driven partekatutako dokumentuan aukeratutako herrialdea idatzi** (ikasleen izenarekin eta zergatia). Bakoitzak **kolore ezberdina** erabiliko du idazteko. (Hemendik aurrera. Drive dokumentua izango da zuen ziriborroa. Nik zuzenduko ditut akatsak, gero Blogean ez agertzeko).

2.-SAIOA

3. Ibilbide honetan aukeratutako herrialdeen hiriburuen **ibilbidea** egingo duzue **Google Maps-en** bidez. Idatzi sarrera batean (Izenburua: Europa ezagutzen: ibilbidea: *LEKUA*) zuek erabakitako herrialdea eta zergatia (driven dago) eta Google Maps-ekin egindako ibilbidea igoko duzue (Gogoratu [nola egiten den blog bat](#)). Hona hemen nola egin ibilbidea gure blogean: [GOOGLE MAPS. NOLA SORTU IBILBIDE BAT](#).

3.-SAIOA

4. Defenditu behar duzue zuen herrialdea taldeen artean. Azken finean, bakarrik herrialde bat geratu behar da talde bakoitzean. NOLA? Lehenengo, Aurkitu behar dituzue 5 arrazoi zuek aukeratutako herrialdera bidaia egiteko. Horretarako ikus dezakezue "[Españoles en el mundo](#)" European eta atera 5 ideia gero zuen herrialdea defenditzeko taldearen aurrean. Bideoen artean ez badago bilatu informazioa interneten bidez, baina gorde behar dituzu iturriak (loturak, weborrialdeak...). 5 ideiak idatzi behar dituzue Drive dokumentuan (iturriekin).

4.-SAIOA

5. Gero, bilatu interneten herrialdearen **irudiak**. Kontuz, irudiak izan behar dira **copyright gabe**, bestela suspentsua aterako duzun atal honetan. Horretarako, gogora ezazue gure blogean dago lotura bat irudiak bilatzeko. Aukeratu bost (5 ideiarekin lotura badute, hobeto) eta egin **aurkezpen** diapositiben bidez edo muralen bidez...irudi eta ideiekin.

5.- SAIOA

6. Txertatu diapositiba ibilbidearen sarrera. Sarrera publikatu ondoren, **lotura kopiatu eta itsasi** taldearekin **partekatutako dokumentuan**. Gero, zuen sarreran idatzi behar duzue ere beste kideek aukeratutako ibilbideak blogean lotura baten bidez: Esan behar duzue nork erabaki duen eta zergatik.

6.- SAIOA eta 7.-SAIOA (ahozko aurkezpenak)

7. Bukatzean (behin zuzenduta) taldearen aurrean defenditu behar duzue zuen proposamena. (5 minututako aurkezpena).

8.- SAIOA

8. Talde bakoitzak **herrialde bat aukeratu behar du** azkenengo produktuaren gida egiteko. (drive dokumentu batean).

BANAKAKO LANA

- Irakasleak egindako banakako galde-sorta erantzun. [Feedback](#)

9. IKERKETA

TALDEA

- Aukeratutako herrialde bati buruzko ikerketa egin behar du talde bakoitzak. Horretarako lana banandu behar duzue. (partekatutako drive dokumentu batean).
- **Informazio orokorra: klima, arropa, ohiturak, ordu-zona. EBko kidea? Noiztik?**
- **Informazio ekonomikoa: gastuak, garraiobideak, moneta, prezioak...**
- **Informazio turistikoa: hotelak, hiriak edota leku interesgarriak (3 gutxienez), ibilbideak, gastronomia, produktu tipikoak, etab.), segurtasuna.**

- bidai-simulazioa prestatu. (8 egun)

Oso arduratsuak izan behar zarete bildutako informazioarekin. Kontuan hartu behar duzue:

- Informazioa eguneratua eta fidagarria izan behar da. Horretarako, oso inportantea da konprobatzea noiz argitaratu dituzten informazioa edo irudiak, ea iturria serioa den...
- Bai irudiek eta bai baliabideek edukinarekin zerikusia izan behar dute eta erakargarriak izan behar dira edo datu berri bat eman behar dute bidaiari berriei interesatzeko.
- Kontuan hartu behar dugu material guztia erabil ditzakegula. Baliabide guztiak aipatu behar ditugu. Eta erabili baino lehen, daukaten lizentzia konprobatu behar dugu.
- bidai-simulazioa egiteko joan zaitezke bidai-agentziara eskatzera aurrekontu bat.

BANAKAKO LANA

- Irakasleak egindako banakako galde-sorta erantzun. [FEEDBACK](#)

AZKEN EKOIZPENA: BIDAIA GIDA SORTU:

Atal honek denbora luzea emango digu. Dokumentu Drive batean: **lan txostena** bete behar duzue. Eta ondorengo informazioa idatzi behar duzue: zenbat denbora egon zarete gida egiten, zeintzuk izan dira taldearen kide bakoitzaren lana, zeintzuk izan dira topatutako arazoak eta nola antolatu duzue zure lana.

PROZESUA:

- Testuak idatzi: Horrela jakingo duzue zein izango den bidaliko duzuen informazioa.
- Material bildu: irudiak, bideoak, grafikoak... Idatzitako testuekin egokituak izan behar dira.
- Web orrialdeak bildu, gero gomendatzeko edo edukiaren barruan egongo direnak.
- Diseinua egin: Aurkeztuko duzuen informazioa izan behar da ondo antolatua, koherentea eta kontsultatzeko erraza.

ZEIN TRESNA ERABILI? Artefaktu digitalak (baliabideak): Murala (erabil ditzakezue: [Smore](#) eta bere [tutorial](#), edo [Glogster](#)) edo Drive-aurkezpen arrunta

(zailtasun handiak ikusten badituzue). QR kodea txertatzea komenigarria izango litzateke.

NON AURKI DEZAKEZUE INFORMAZIOA? Web orrialde asko daude, baina hona hemen gomendio batzuk:

- Traveler.es: <http://www.traveler.es/guias/europa>
- Guia mundial de viajes: <http://www.guiamundialdeviajes.com/europa>
- Bidaia aholkuak:
<http://www.exteriores.gob.es/Portal/eu/ServiciosAlCiudadano/SiViajasAlExtranjero/Paginas/inicio.aspx>

Autoebaluazioa egin errubrika baten bidez: [Nola ebaluatuko dugu gure murla?](#); [Nola ebaluatuko dugu aurkezpena diapositibekin?](#) [Nola ebaluatuko dugu talde lana?](#)

BANAKAKO LANA

- Irakasleak egindako banakako galde-sorta erantzun. [FEEDBACK](#)

AURKEZPENA

Aurkezpena laburra prestatu behar duzue klase aurrean zuen gidaren berria emateko. Taldeko kide guztiek ahozko aurkezpena egin behar dute. 10 minututan azaldu behar duzue:

- Zuen gidaren oinarritzko datuak: herrialdea, zer informazioa duen, eta nola kontsultatu.
- Nolakoa izan den prozesua: **lan txostenaren** laburpena egin.
- Erabili dituzuen iturriak (informazioa biltzeko)
- Arrazoiak gida erabiltzeko: Zergatik zuen herrialdea bisitatu behar dugu? Zergatik egindako gida erabilgarria izan liteke edozein bidaiarirentzat. Zenbat balio du herrialdea bizitatzera (8 egun).

Gidoia prestatzea komenigarria izango litzateke. Gidoia **Lan txostenari** erantsi behar diozue.

- Galde-sorta (Drive) prestatu ikaskideek erantzuteko aurkezpena ikusi ondoren (formularioa).
- Ahozko aurkezpena ikasleen aurrean. [Nola ebaluatuko dugu ahozko aurkezpena?](#)

GIDA EBALUATZEKO ERRUBRIKA:

<http://www.slideshare.net/cedecite/rubricaguiacedec>

FEEDBACK

HEDATZEA:

- Aurkezpena blogera igo. (derrigorrez)
- Bideo bat egin dezakezue Touchcast-ekin (azaltzeko lana)
- Lan txostenean agertu behar da nola hedatu duzue gida.

NOLA EGIN BIDEOA?

Helburua da bideoa prestatzea proiektua azaltzeko. Talde bakoitzak azaldu behar du zer ikasi duen eta zeintzuk izan diren ondorioak amaitutako lana ikusi ondoren.

Lana izan daiteke: bideo kolektibo bat (talde guztiek azaltzen dituzte ondorioak) edo bideo bilduma bat (talde bakoitzak azaltzen du bere lana). Edozein kasutan, talde bakoitza izango da lanaren zati baten arduraduna eta zati horretan ebaluatuko da. Saio batean planifikatu behar duzue bideoa eta gero grabazioa egingo da. Zabaltzeko youtube institutuko kanala erabil dezakegu. Bideoa txertatu behar duzue blogean.

NOLA EBALUATUKO DA BIDEOA?

[Errubrika bideo laburpena ebaluatzeko.](#)

BANAKAKO LANA

- Irakasleak egindako banakako galde-sorta erantzun.

[Feedback](#)

ITURRIAK

http://agrega.educacion.es/visualizar/es/es_2014061612_9095209/false

<http://descargas.pntic.mec.es/cedec/proyectoedia/reasociales/contenidos/nosvamosdeviaje/index.html>

<http://procomun.educalab.es/es/ode/view/1416349609739>